



ARABA

Gazeo

GOTIKO ORMA IRUDIAK





Azken-auzia eta Abraham-en Altxoa. Abside ezker aldean.

MARTIN DEUNAREN ELIZA

Hegoaldeko ormaren aurrekaldean puntuerdiko giltzarria aurkitzen da. Hau erromaniko kapelez zutarrietan tinkatuak dauden hiru ar-uztaiez eraturik dago. Sarbide honek oin angeluzuzendun, elizbular erdizirkular eta lorezko muinez landutako kapelak dituzten zutarriez eginiko kanoi-sabaidun elizara eramaten gaitu.

Azkenaldiko berriztaketan jaitsitako barroko aldareburuen ohol eta lanketak elizaren ormetan ezarriak izan dira.

Eskuineko orman Martin Deunaren bizitz-antzezketak azaltzen diguten bi ohol eta Gabriel eta Rafael goiaingeruen lanketak. Atzean, bataioharri gainean, Pedro eta Paulo saildun eta Ion Bataiatzailearen irudiak, XVI. mendekoak. Ezkerreko orman aldareburuko guruzpidea. Aldare nagusian, ohore tokian, elizaren saildu titular den Martin Deunaren irudia.

Sagrarioa ormasartuta dago. Azpiko orman gotiko dosel eder bat. Hau erromaniko zutari bik mantentzen duten hiruringilezko arkuz apaindurik dago. Zutarriek lorezko muinez landutako kapelak dituzte eta bi giza-aurpegi landuta dauden zurkaitzetan atsedetzen dira.

ORMAIRUDIAK

Eliza honen berebiziko eta aszetika ikuspegiak kontuan hartuko bagenitu aldareingurua eta elizbularra izango liriateke eliza honen erakarrindarrenak zeren beren ormairudiek aspektu bi horiek benetan betetzen bait dituzte.



Jaunaren Gurutz-hiltzapena. Abside eskuin aldean.


Hauek izkutuan egon izan dira, Pedro de Arenalek, XVIII. mendean, eraikitako erretaula atzean, garai hartan egin zen eliz-apaindurak kare-jantzigain azpian hartu bait zituen. Baina 1967.urtean eginiko eliz-berrizaketak berreskuratu zizkigun.

Arabako Foru Aldundiaren kontuko kargu Madrilgo Etnologia, Arkeologia eta Ederlanen Iraunketa eta Berrezarketabide Erakundeak birkonpondu zituen eta honez gero ikertzaile jakitunek aztertu zituzten irudi hauek. Ikertzailerik lehena Lovaina-ko Unibertsitateko kateraduna den Juan Carlos Estepe jauna aipatu behar dugu.

Irudi hauek XIV. mendeko lehen herenekoak dira. Franko gotikolineal orma koadroaren korronea jarraitzen dute. Bere artegintza bitariko teknikazkoa da: iztukua motibu nagusientzat izanez eta xehetasunak kolore eratsuez likar margozturik.

Orma-koadroen muinak edo katekesiak hiru helburu eta motibunagusi lortu nahi ditu: Jainkoaren Hitza, gizonaren xedea eta Guztiahaltsuaren aintza.

Jainkoaren hitzaren katekesiak aldareinguru gehiena hartzen du: bi parekidetan ebangelariengandik eta alegiazko ebangelioetatik hartutako Jesusen bizitzako antzeketak eta hauen esanahia adierazten diguten inskripzioak aurkitzen dira. Horrela, aldareinguruko ezkerreko orman Jesusen jaiotzaren irudiak agertzen dira: iragarkundea, ikerkundea et Jaunaren jaiotza non Maria ohean etzanda eta alegiazko ebangelioek diotenez Mariaren birjintasuna zihurtatzen duen emagin bat ikusten diren. Azpiko



Infernua. Aldare-aurreko ezkerreko orman.

Abside eskuineko aldeak Azken-Auzia jakinerazten digu. Irudi hauek agertzen dira: Mikel saindua animak pisatzen, beste aingeru bat animaren alde otoitz egiten eta deabruaren kontra borrokatzen eta Santa Marina deabrua katez lotzen.

Aldeinguruko ezkerreko orma alboan Infernua. Bere itxurapena honela agertzen da: izugarritzko mamutzar bat bere eztarrizulotik aingeru batek bultzaturik anima galduak sartzen direla.

Zerua bi zatitan itxuratzen da: gizon-emakume zuzenei emango zaien saria eta Jainkoaren aintza adieraziz. Abraham-en irudia zutik eta gurutze batekin, irudi berean Kristo eta Abraham-en itxurapenak, liturgiak sinesten duen bezala, ager daitezten.

Absidearen erdiko sabaia Jainkoaren Aintzaren itxurapenak hartzen du. Tronuan eserita Aita'Jainkoak bere eskuetan Semea gurutzean iltzatua eusten du. Honek buruan koroa darama. Jakitunek diotenez, koroa horrek haseran Ispiritu Saindua itxura zezaken nahiz eta VXi. mendean egin zen berrizaketan aldatua izan.

Bi albotan Aingeruek Jesusen oinazearen atributuak daramatzate zigorketa, koroa, kainabera eta lantza—. Beste bi aingeru animek hartuko duten saria edo zigorra azaltzen digutelarik.

Zenbait irudik otoitz jarreran osatzen ditu aldeinguruko ormak. Hauek "Zeruko Doatsu Koroa" eratzten dute: Apostoluak Martiriak, Fedeaিতortzaileak, zenbait Jarraitzaile eta Birjinak.

Gazeo Arabako Lurralde historikoaren Agurain Taldea osatzen duen Iruraitz-Gauna Udalaren herrixka bat da. Vitoria Gasteiztik, ekialderantz, hogei kilometrotara kokaturik dago, 1.nazio errepidean. Ventas de Gazeo deitzen den tokian landabide bat hasten da. Gasteiztik Agurainera, Dulantzi zeharkatuz, doan L-123 landabide honek Gazeo herria Langara eta Alaiza herriak batzen ditu.

Hamar edo hamabi etxek eta txakoli taberna batek osatzen dute herrixka hau. Bertan benetako erromaniko Eliza aurkitzen da, XIII. mendekoa, mende honen bigarren laurden garaian datatzen dena.

Oraintsu, sartaldeko orma indartua izan da, egurrezko landelizpe eraikia eta elizbularreko orma, koadroak hezetasunetik gordetzearren, berriztua.



Idazlea: JOAQUIN JIMENEZ

Fotogilea: J. L. BARROSO

Itzultzailea: Floren Unzueta (Euskara Zerbitzua. Arabako Foru Aldundia)

Inprimatzailea: GRAFICAS SANTAMARIA, S.A. - D.L.: VI-444-84

**DIPUTACION FORAL
DE ALAVA**



**ARABAKO FORU
ALDUNDIA**

**AREA DE CULTURA - KULTURA ARLOA
DEPARTAMENTO DE TURISMO - TURISMO SAILA**

ATA
2.80